2010-VII-23
Número **310.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

# astekaria

## EDITORIALA

### Hemen eta Madrilen

**Lan erreformaren bidaiak ez du bukatu. Datozen egun eta asteetan Kongresuko taldeek emendakinen eztabaida eta bozkatzeari ekingo diote ezarri den urgentziazko prozeduraren baitan. Aurrez adierazi genuen bezalaxe, edozer gauza espero daiteke beti ere okerrerako bidea hartuko duelakoan bagaude ere. Talde gehienek neurriak gogortzearen alde edo proiektuan beste hainbat atal sartzeko jarrerak agertu dituzte, hara nola negoziazio kolektiboaren egitura esaterako.**

**Guzti horren aurrean, esangura berezia du gure ikuspegitik Madrilen ELA eta Galiziako CIG sindikatuek egin dugun agerpen publikoak, lan erreformari buruz gure hausnarketa komuna adierazteko. Talde parlamentarioei eskaintza gure arrazoibideak eta argudioak entzun ditzaten eta prentsaurrekoa lan erreformaren testuingurua baloratzeko.**

**Eduki zehatzaz gain –guztiz kaltegarriak direnak eta Kongresuko bidean are okertuago irten daitezkeenak–, elkarrizketa sozialaren krisi estrukturala agerian utzi nahi izan dugu, azken urteotan hainbeste goraipatu den elkarrizketa sozialak porrot nabaria egin baitu. Beste ikuspegitik, elkarrizketa sozialaren eredua gizartea desmobilizatzeko, bake soziala bermatzeko eta gizartea bera kontrolatzeko burutua dagoela salatu dugu elkarrekin. Hortik inolako onurarik ez datorrela langileentzat frogatu dugu aspalditxo.**

**Adierazpen horretan legeak egiteko ahalmena aldarrikatu dugu gure lurraldeetan eskubide laboral eta sozialak erabaki ahal izateko. Ezinbestekoa zaigu estaturik gabeko nazioko sindikatuentzat helburu estrategiko hau presente izatea. Eta honekin batera, kontra-boterea izan nahi duen eredu sindikal batekiko konpromisoa berretsi dugu bi sindikatuok. Gure jendetik gertu, gure jendearekin bat. Sortu ez dugun krisiaren pagatzaile nagusiak izendatu gaituzten honetan, ez dago amore ematerik eta bakarrik langileon borrokatik etor daiteke zilegitasuna eta sinesgarritasuna egoera aldatu ahal izateko. Ez dago beste biderik.**



**Bi sindikatuetako ordezkaritza bat Madrilgo Parlamentuan izan da, lan erreformaren inguruan duten kontrako jarrera azaltzeko**

# ELA ETA CIG MADRILEN, LAN ERREFORMAREN AURKA

ELA eta CIG sindikatu galiziarrak Espainiako Parlamentuak onartu berri duen lan erreformaren aurkako mezua eraman dute Madrilera. Bi sindikatuetako ordezkari gorenak Diputatuen Kongresuko talde ezberdinetako ordezkariekin elkartu ziren uztailaren 21ean. Bilerara EAJ, NaBai, BNG, CiU eta PSOE alderdietako ordezkariak joan ziren; IUko ordezkaritza bat ere parte hartzekoa zen, baina azken orduan ezin izan zuten joan.

Adolfo Muñozek, *Txiki*, eta Xesus Xeixok –ELA eta CIG sindikatuetako idazkari nagusiak, hurrenez hurren–, lan erreformaren aurkako adierazpen bateratua aurkeztu zieten parlamentariei. Langileon kontrako eraso berri honen aurka egoteko makina bat arrazoi azaldu zituzten Muñozek eta Xeixok. “Krisi ekonomiko honetara ez gaituzte lan-merkatu zurrunak, ez soldatek edo kaleratzearen kostuak, ezta negoziazio kolektiboaren egiturak edo gizarte- gastuak ekarri. Horrenbestez, gezurrezkoa eta hipokrita da esatea krisi horrentzako konponbidea eskubideak eta gizarte-gastua murrizteko erabakiak izango direla”.

“Krisiaren zergatia beste bat da –gaineratu zuten–. Batetik, alegiazko ekonomia bat sustatu dute, espekulatiboa, ekonomia produktiboaren bizkar bizi dena, eta, bestetik, azken urteotan politika neoliberalak ezarri dira: errenta handienen eta kapitalaren gaineko zerga-presioa gutxitzea; sektore publiko guztia (industria eta finantzetakoa) pribatizatzea; lan-merkatua prekarizatzea eta soldaten erosteko ahalmena murriztea.



*Una delegación de ELA y del sindicato gallego CIG acudió al Congreso de los Diputados de Madrid para exponer su rechazo frontal a la reforma laboral*

Hortaz, krisiari gizarteko gehiengoaren interesen araberako irtenbide bat eman nahi bazaio, bestelako politikak beharrezkoak dira: zerga-erreforma sakona; iruzur eta paradisu fiskalak desagerraraztea; gizarte-gastua gehitzea; soldatak hobetzea; banketxe publiko bat sortzea; ekonomia produktiboa laguntzea eta eredu produktiboa aldatzea”.

## POR OTRAS POLÍTICAS DE SALUD LABORAL

ELA y LAB anunciaron el 5 de julio su decisión de suspender su participación en el Consejo General de Osalan a todos los efectos y con carácter indefinido, hasta que existan garantías de que dicha participación va a tener un valor, en cuanto a contenidos y en que se tenga en cuenta la opinión de mayoría sindical vasca a la hora de definir las política públicas en materia de seguridad y salud laboral.

Con el objetivo de analizar esta decisión y exigir otro tipo de políticas de salud laboral, ELA celebró el 9 de julio una reunión de delegados y delegadas en el frontón La Esperanza de Bilbao. Leire Txakartegi, responsable del Departamento de Seguridad y Salud Laboral, recalcó que “las tasas de la siniestralidad y de las enfermedades profesionales en la CAPV siguen estando en unos niveles inaceptables. El año pasado, por ejemplo, 68 trabajadores y trabajadoras perdieron la vida debido a un accidente de trabajo. Pese a estos datos alarmantes, el Gobierno Vasco muestra un nulo interés por la salud laboral, y no quiere abordar las razones de fondo de la siniestralidad, ya que ello implicaría adoptar decisiones que van en contra de los intereses de la patronal”.

“Es evidente –añade Txakartegi– que la seguridad y la salud laboral no les interesa. Si no, ¿cómo se explica que el presupuesto de Osalan de 2010, que había tenido una reducción inicial respecto al anterior del 8,4%, sufra nuevos tijeretazos que llegan hasta el 43% del presupuesto? Es un recorte escandaloso, sobre un presupuesto ya irrisorio, que no llega ni al 0,02% del PIB. La falta de una política efectiva se cubre con mucha propaganda, campañas, congresos vacíos de contenido... que de nada sirven”.

Por su parte, Adolfo Muñoz, *Txiki*, secretario general, denunció que Gobierno Vasco y patronal comparten modelo de relaciones laborales. “Los dos dan por buenas la precariedad, el fraude de ley en la contratación y la subcontratación sin control, verdaderas causas de los accidentes de trabajo y enfermedades profesionales. En consecuencia, tanto la Inspección de Trabajo como Osalan no cumplen su papel de vigilancia, control y sanción de los incumplimientos en esta materia. La siniestralidad no desciende y las causas estructurales que la originan se siguen sin abordar”.

Tras el acto del frontón La Esperanza los 1.200 delegados/as reunidos se manifestaron por las principales calles de Bilbao, hasta llegar a la sede del Gobierno Vasco, en Gran Vía 85.



# "ES UN ATAQUE A LA CLASE TRABAJADORA"

**Representantes de los sindicatos ELA y CIG, encabezados por sus secretarios generales –Adolfo Muñoz, *Txiki*, y Xesus Xeixo, respectivamente–, acudieron el 21 de julio al Congreso de los Diputados de Madrid para reunirse con los diferentes grupos parlamentarios. El objetivo del encuentro fue presentarles una declaración conjunta sobre la reforma laboral, así como sus opiniones en torno a este proyecto de ley. A la reunión acudieron miembros del PNV, NaBai, BNG, CiU y PSOE. IU también tenía previsto acudir, pero a última hora excusó su ausencia. Esta es la declaración conjunta que presentaron ELA y el sindicato gallego CIG.**



ELA y CIG queremos manifestar nuestro rechazo a la nueva reforma laboral decidida en el ámbito del Estado Español, tanto por la forma en la que dicha reforma se ha gestado como por sus contenidos totalmente regresivos.

## CRISIS ESTRUCTURAL DEL DIÁLOGO SOCIAL

El proceso de "diálogo social" que se ha desarrollado para abordar la reforma tenía un objetivo marcado de antemano: recortar los derechos laborales. Los documentos públicos del gobierno (el primero, del 5 de febrero) así lo confirmaban. Cuando Zapatero dijo que "haría los ajustes cueste lo que cueste" y que "en la reforma laboral se tocarían aspectos esenciales" era claro que la gran beneficiada sería la patronal. Desde esa realidad el diseño del "diálogo social" que se ha realizado ha supuesto un factor de control social y desmovilización evidente. En ese "diálogo social" se pretende dar la falsa imagen de que las responsabilidades son compartidas, cuando en realidad la gestión de las consecuencias de la crisis se decide de manera acordada entre los gobiernos, la patronal y los poderes financieros.

## PROCESO SUMARÍSIMO CONTRA LOS DERECHOS LABORALES

El gobierno español ha decidido, una vez más, imponer una reforma laboral vía Real Decreto Ley, un mecanismo reservado para situaciones límite o urgentes. Ese procedimiento se utiliza para evitar el debate, la participación y la confrontación social. Tras dar por cerrada la mesa de "diálogo social", el gobierno ha buscado el acuerdo con las posiciones más reaccionarias, ha empeorado sensiblemente el texto inicial y ha asegurado, a quienes han permitido que el RDL se tramite como proyecto de ley, que en ese trámite aún pueden recortarse más derechos. En el Parlamento, y con la colaboración de esas fuerzas políticas, se ha abierto un "mercado persa" de transacciones que tiene por objeto único lesionar gravemente los derechos laborales. La decisión de cerrar el debate en pleno periodo de verano (habilitando julio y agosto para llevar a efecto ese atropello) es una muestra más de cómo se juega con los derechos de la gente.

## EVIDENTE RIESGO DE QUE EMPEORE

Los apoyos logrados por el Gobierno para que la Reforma vaya adelante auguran un empeoramiento de la misma.

## CONTENIDOS NEGATIVOS MÁS RESEÑABLES:

### ■ Los contenidos concretos

**Las medidas aprobadas suponen facilitar y abaratar el despido** para todos los trabajadores y trabajadoras que tienen un contrato indefinido. Además, se aprueba la subvención pública para parte de estos despidos. Son múltiples las empresas que ya han decidido aplicar la reforma para despedir, individual o colectivamente, a su personal.

**La reforma ataca la esencia de la negociación colectiva**, al facilitar que las empresas queden exentas de la aplicación de los convenios colectivos, en especial en lo que hace referencia al salario. También se avanza en la posibilidad de que los empresarios, sin acuerdo con la representación sindical, realicen modificaciones sustanciales de las condiciones de trabajo.

**La reforma abre nuevas puertas al negocio empresarial con la intermediación en el empleo**. Para ello se legalizan las agencias privadas de colocación con ánimo de lucro, y se eliminan la práctica totalidad de las restricciones a la actuación de las Empresas de Trabajo Temporal (ETTs), con el aumento del riesgo de sufrir un accidente laboral que ello conlleva. Hay que recordar sobre este particular que en el último convenio de ETTs se acordaba instar a las autoridades para que se eliminasen los obstáculos para que las ETTs pusiesen entrar en los ámbitos que tenían vedados (Administración Pública y Construcción). Ese convenio fue acordado con CCOO y UGT.

CIG y ELA queremos resaltar que a lo largo del proceso de negociación de la reforma laboral, realizado en secreto, ha salido a relucir el compromiso de la patronal, CCOO y UGT de acordar una nueva estructura de la negociación colectiva. No es la primera vez que se realiza este intento de centralizar la negociación colectiva, para eliminar o reducir a su mínima expresión los convenios sectoriales territoriales. Ambos sindicatos consideramos que sería muy grave que se negara o limitara a los trabajadores y trabajadoras de Galiza o de Hego Euskal Herria el derecho a decidir qué y dónde negociar. Implicaría además, alejar y dificultar la participación en la negociación colectiva de la gran mayoría de los trabajadores y trabajadoras, pertenecientes a la pequeña empresa, con el retroceso en sus condiciones laborales que ello supondría con el tiempo.

### ■ Un diagnóstico falseado

**Se premia el fraude en la contratación.** Al igual que en las reformas anteriores, la temporalidad en fraude, consentida por la nula voluntad de las administraciones laborales en perseguirla, se ha vuelto a utilizar como excusa para atacar los elementos de protección de la relación laboral.

**Falsedades repetidas**. Son varias las falsedades utilizadas para justificar la reforma. La primera es que se creará empleo. No es verdad; la reforma no supondrá ni un empleo nuevo. Al contrario, servirá para destruir más puestos de trabajo en época de crisis. La segunda mentira es que despedir es difícil y caro. En realidad, el despido es libre, y no debe ser muy caro viendo la facilidad con la que se han destruido muchos más empleos que en ningún otro sitio de Europa. Estas y otras falsedades han sido extendidas por los denominados "expertos", un colectivo muy bien identificado al que le es imposible ocultar su ligazón estrecha con el mundo empresarial y financiero.

**El objetivo real de los recortes es mejorar la cuenta de resultados de las empresas**, dando mucho más poder al empresario. Es inaceptable que se hable de "cambio de modelo productivo" cuando la apuesta de la reforma se concreta en aumentar la precariedad.

## LEGISLACIÓN BÁSICA ESTATAL

En nuestros países se aplica la legislación laboral decidida en el Estado Español, lo que supone la aplicación de un modelo de reforma permanente, en la que, como se ha mencionado, los recortes de derechos se conjugan con la amenaza de recorte de nuestras posibilidades de negociación colectiva. Este modelo es muy perjudicial para la clase trabajadora.

## POR TODO ELLO, ELA Y CIG DECLARAMOS QUE:

● **Hacemos un llamamiento a los grupos parlamentarios a rechazar la reforma labora**l que se está tramitando en este momento en el Parlamento Español, por suponer un grave retroceso de los derechos de la clase trabajadora.

● No son las rigideces del mercado laboral, ni los salarios, ni el coste del despido, ni la estructura de la negociación colectiva, ni el gasto social, las causas que nos llevaron a esta crisis económica; por tanto, **es una mentira y una hipocresía presentar estas medidas de recorte de derechos y del gasto social como la solución para dicha crisis.**

● **La causa de la crisis está en el fomento de una economía ficticia, especulativa, que parasita la economía productiva, junto con las políticas neoliberales** seguidas en los últimos años: reducción de la presión fiscal a las rentas más altas y al capital; privatización de todo el sector público (industrial y financiero); precarización del mercado laboral y recorte del poder adquisitivo de los salarios. Es pues, mediante una reforma fiscal profunda, la eliminación del fraude fiscal y de los paraísos fiscales, el incremento del gasto social, la mejora de los salarios, la creación de una banca pública, el apoyo a la economía productiva y el cambio del modelo productivo, como podemos plantearnos realmente políticas que lleven a una salida real de la crisis favorable a los intereses de la mayoría social.

● **Reclamamos capacidad legislativa plena para decidir en nuestros ámbitos territoriales los derechos laborales y sociales**. Exigimos el respeto a las decisiones adoptadas en nuestros pueblos.

● **Renovamos nuestro compromiso por un modelo sindical de contrapoder**, que exige un cambio radical de las políticas públicas y de la forma de actuar de los empresarios. Es imprescindible reafirmar un modelo reivindicativo orientado a un reparto más justo de la riqueza, y ello sólo es posible mediante la sensibilización social, la formulación de alternativas en los diversos campos de trabajo y la movilización de la clase trabajadora.

## Leire Txakartegi, lan segurtasun eta osasun arduraduna

# "HONELAKO OSALANI, EZ!"




Leire Txakartegik salatzen duenez lan-osasunaren egoera ikaragarri larria da gurean. Hori dela-eta, ELA eta LAB sindikatuek uztailaren 5ean iragarri zuten erabakia hartzea beste erremediorik ez zegoela uste du: Osalango Kontseilu Nagusiko partaidetza ondorio guztietarako eta epe jakinik gabe etetea, partaidetza horrek balioren bat duela bermatzen ez den artean; batetik, edukiei dagokienez, eta bestetik, euskal gehiengo sindikalaren iritzia aintzat hartzeari dagokionez, lan-segurtasun eta -osasun gaietako politika publikoak erabakitzerakoan.

**-ELAk eten egin du bere parte hartzea Osalango Kontseilu Nagusian. Zergatik?**

-Erakunde honek azken hiletan izan duen ibilbideak behartu gaitu erabaki hori hartzera. Euskal Autonomia Erkidego mailan laneko istripu eta gaixotasun profesionalen tasak onartu ezineko mailatan daude oraindik. Eusko Jaurlaritzak lan-osasunari ez dio behar bezalako arretarik ematen, eta ezbeharren benetako zergatiei ez die heldu nahi. Hala egitekotan patronalaren interesen aurkako erabakiak hartu beharko lituzke. Jaurlaritza eta patronala lan- harremanen ereduari buruz ados daude: ontzat ematen dute prekarietatea, kontratuetan dagoen iruzurra eta kontrolik gabeko azpikontratazioa; hots, istripuen eta gaixotasunen sakoneko arrazoiak onartu egiten dituzte. Horrenbestez, ez dituzte betetzen –ez Lan- Ikuskaritzak, ez Osalanek– gai honekiko arau-hausteak kontrolatu eta zigortzeko dagozkien betebeharrak.

Eusko Jaurlaritzak baztertu egin du lan-osasunean zinezko politikarik egitea. Horren adierazgarri, Osalanen aurrekontua: 2010erako aurreko urtearekiko %8,4 murriztuta zegoen arren, beste kolpe batean moztu egingo dute, guztira %43. Murrizketa eskandaluzkoa da, berezko aurrekontua barregarria baitzen, Barne Produktu Gordinaren %0,02tik beherakoa. Taxuzko politikarik ezean, propaganda egiten dute: kanpainak, kongresu hutsalak... ezertarako balio ez duten ekimenak. Egoera hau ikusirik, ez genuen beste aukerarik.

**-ELAk urteak daramatza Osalanen jarduera salatzen.**

-Hala da. Osalaneko Kontseilu Nagusian genuen parte hartzea bertan behera uzteko erabakia ez da goizetik gauera hartu, prozesu baten ondorioa izan da. Osalan erakunde burokratizatua da, ezgauza eta patronalaren zerbitzutan dihardu. Kontseilu Nagusia antzezpen formal bat besterik ez da. Besteak beste, berari dagokio erakundearen urteko planak onartzea. Batzordeari ematen zaion informazioa eskasa eta partziala da, eta gai batzuetan propio ezkutatzen dira datuak: ikuskatzeari, arau-hauste aktei eta zigorren zenbatekoari buruz... Bilerak gero eta okerrago joan dira; gure eskari eta galderei erantzunik ere ez diete eman.

**-Jaurlaritzak, patronalak eta CCOO eta UGT sindikatuek Osalanen inguruan darabilten kudeaketa salatzen dugu. Zergatik?**

-Aipatu dituzun horiei Osalan soilik finantzatzeko bide gisa interesatzen zaie. Adibide bat jarriko du: Jaurlaritzak, Confebask, CCOO eta UGTren aldeko botoaz, estatuko *Fundación Laboral de Prevención de Riesgos Laborales*-i funtsak eskatzea erabaki du. Diru hori EAEko Lan-Istripu eta Gaixotasun Profesionalen Mutualitateek pilatzen dituzten soberakinak dira, eta beraz, kotizazio sozialetatik datoz.

ELAk, baina baita orain arte Osalango Kontseilu Nagusiak eta Jaurlaritzak berak ere, beste irizpide bat mantentzen du: diru hori zuzenean ipini behar da EAEko erakundeen esku, Fundazioko *leihatila* horretara jo gabe. Diru publiko hori onartzearekin funtsak banatzeko beste eredu bat ezarriko da: patronala eta estatu mailako sindikatuak finantzatzeko modua dakarren eredua, alegia.

**-Eta, hau guztia, '*elkarrizketa soziala*' deitzen duten horren barruan...**

-Jaurlaritzaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoa estatuko beste edozein autonomi-erkidegoren modukoa izatea da, baita laneko segurtasun eta osasunaren esparruan ere. Autogobernu mailarekiko atzerakada nabarmena dakarten erabakiak hartu ditu, eta bere eskumenak erabiltzeari uko egin dio.

Porrot egin duen sistema bat ezarri nahi digute; Espainiako eredua. Espainian administrazioak laneko segurtasun eta osasunaz paso egin du; ikuskatzeko eta kontrolatzeko bere betebeharra baztertuta, 'pribatizatu' egin du, *prebentzioko sektore- delegatu* izeneko figura bati eman baitio egiteko hori –haatik, delegatuok ez daukate zigorrik ezartzeko ahalmenik–. Horren truke, sisteman parte hartzen duten patronalak eta sindikatuek dirutza jasotzen dute kutxa publikoetatik. Horixe da hemen ere ezarri nahi duten eredua.

Azken batean, Osalan '*elkarrizketa soziala*'ren zerbitzutan jarri nahi dute. Eusko Jaurlaritzaren apustua nabarmena da: Osalan edukirik gabe utzi nahi dute, erabili eta gutxiengo sindikalak parte hartzen duen '*elkarrizketa sozial*'eko mahaiaren zerbitzutara ipini. Horretan bat datoz '*elkarrizketa sozial*'eko mahaikide guztiak. Gutxiengo sindikalarekin itxitako akordioak Kontseilu Nagusira eraman dituzte, Osalanek finantza ditzan. Baina akordio horiekin istripuen kontrako borrokan ez da aurrera egingo.

*Lotu* kanpainak argi utzi du hori: kanpaina honekin eraikuntzan "goitik beherako erorketen prebentzioa" sustatu nahi omen dute. Osalanen aurrekontuko 400.000 euro bideratuko dira kanpaina hori egiteko.

CCOOek eta UGTk erabaki dute gobernuaren bidelagun izangoa direla gai honetan egiten duen orotarako, administrazioak murrizten eta eskubide laboralak urratzen ari diren unean bertan. Beraz, patronalaren eta gobernuaren artean zegoen akordiora bildu dira. *'Elkarrizketa sozial'*aren mahaiko dinamika bete-betean islatzen da Osalango Kontseilu Nagusian.

> *Es evidente que la seguridad y la salud laboral no les interesa ni al Gobierno Vasco ni a la patronal. Si no, ¿cómo se explica que el presupuesto de Osalan de 2010, que había tenido una reducción inicial respecto al anterior del 8,4%, sufra nuevos tijeretazos que llegan hasta el 43% del presupuesto?*

## Labur Breves

### • La situación laboral de los y las ertzainas es insostenible

Un año después de que el Consejero de Interior Rodolfo Ares tomara posesión de su cargo, ELA-Ertzaintza ha hecho público su balance. Ruben Espino, responsable del sector, denuncia que la situación laboral de los y las ertzainas es insostenible, por lo que exige el cese inmediato de Ares al frente de la Consejería. "ELA comparte y hace suyo el amplio sentir del conjunto de ertzainas, cansados y cansadas ya de sufrir en sus propias carnes las continuas, autoritarias y laboralmente precarizadoras decisiones de este Consejero, en la mayoría de las ocasiones con objetivos mediáticos e instrumentales, de naturaleza político-partidista".

"ELA –añade Ruben Espino– se hace así mismo partícipe del interés social por un modelo de Policía determinado, vasca y euskaldun, preventiva, cercana, dotada de recursos, transparente y sensible al conjunto de garantías y derechos individuales de la sociedad vasca, formada y libre de la manipulación e instrumentalización política. Este modelo viene a ser la antítesis de la Policía en que, con cada decisión, el Consejero Ares pretende convertir a la Ertzaintza".

### • Contra el ERE en Troquenor

Los trabajadores/as de Troquenor se concentraron el 22 de julio frente al juzgado mercantil de Bilbao para mostrar su desacuerdo ante los 40 despidos planteados. Troquenor, empresa situada en Sondika, cuenta con una plantilla de 165 trabajadores/as y se encuentra dentro de un proceso concursal. Después de 4 EREs de suspensión la dirección de la empresa ha planteado un ERE de extincio´n para 40 trabajadores/as.

La totalidad de la plantilla rechaza cualquier tipo de despido. Actualmente existe carga de trabajo para toda la plantilla. Por tanto, es injustificada cualquier medida que conlleve destruccio´n de empleo. Los trabajadores/as denuncian que la verdadera intencio´n de la empresa es desprenderse de una parte importante de la plantilla, para que posteriormente sea sustituida por mano de obra subcontratada mucho ma´s barata.

### • Por un ámbito de negociación colectiva propio

Ante la operación financiera en la que BBK ha adquirido Caja Sur, ELA recuerda que no dará su apoyo a operación alguna que suponga cualquier debilitamiento de las condiciones laborales de los trabajadores/as de BBK. ELA insiste, hoy ma´s que nunca, en la necesidad de centrar la negociacio´n colectiva en el a´mbito de Euskal Herria para el mantenimiento y mejora de las condiciones de trabajo.

## Esteban Pereda, responsable de ELA en CustomerWork

# "EXIGIMOS LA SUBROGACIÓN"



*Esteban Pereda, junto a algunas de las delegadas de ELA en CustomerWork*

El 19 de julio el Departamento de Trabajo del Gobierno Vasco dictó una resolución sobre el ERE presentado por la dirección de CustomerWorks, que suponía el despido de todas las trabajadoras. Esteban Pereda considera que la resolución es muy satisfactoria, ya que rechaza el ERE presentado por CustomerWorks. "Además –añade Pereda– la resolución reconoce la sucesión de empresas y el derecho de subrogación sin perdidas de los derechos. Es una resolución absolutamente fundamentada en la legislación y jurisprudencia tanto estatal como comunitaria".

**-¿Qué valoración haces de resolución contra el ERE presentado por CustomerWorks?**

-Estamos muy satisfechos. CustomerWorks es una empresa que realiza el servicio de atención al cliente de la empresa Iberdrola. La empresa trabaja única y exclusivamente para Iberdrola y en un edificio de Iberdrola en Güenes. De la totalidad de las 329 personas contratadas para este servicio, 127 tienen contrato indefinido y 202 tienen con contrato de fin de obra o servicio, la mayoría de ellos en posible fraude de ley, incluso algunos con antigüedades de más de 6 años.

**-¿Qué es lo que ha sucedido?**

-Iberdrola decidió en julio del 2009 sacar a concurso el servicio, para que éste fuera realizado por la empresa que más se ajustase a sus intereses, sin establecer en las condiciones del servicio la subrogación de la totalidad de la plantilla que la ley establece. Era un caso evidente, ya que realizando el mismo trabajo, en el mismo lugar y para la misma empresa, se debía garantizar la subrogación, al existir claramente una sucesión de empresas.

En este momento, CustomerWorks planteó el despido de la totalidad de la plantilla, presentando un ERE de extinción para despedir a las 127 trabajadoras indefinidas y a la finalización del contrato del resto del colectivo.

**-Ante esta situación, ¿qué planteó ELA?**

-Analizamos el tema, y visto esta situación absolutamente ilegal comenzamos una lucha para defender nuestros puestos de trabajo y nuestros derechos. Es decir, una lucha por la subrogación. Llevamos ya a día de hoy 13 jornadas de huelga, y durante este tiempo Konecta nos ofrece un puesto de trabajo con perdidas de nuestros derechos, empezando por la antigüedad.

La representación sindical de ELA y LAB no aceptamos esa propuesta que entendemos ilegal y coactiva, ya que las trabajadoras llevamos muchos años trabajando en el mismo sitio y para la misma empresa, por lo que no podemos aceptar que el cambio de subcontrata suponga empezar de nuevo. Tenemos que recordar que ELA y LAB ostentamos la mayoría en el Comité de Empresa, 9 delegados/as sobre 13 –ELA 7 y LAB 2–.

**-¿El resto de sindicatos también lo entendieron así?**

-No. CCOO no lo entendió así, aceptando el chantaje realizado por las empresas y firmando un acuerdo en minoría, llevando además a algunas trabajadoras, bajo el paraguas del miedo a perder su puesto de trabajo, a firmar una hoja de adhesión que supone la perdida de todos sus derechos.

**-Conocida la resolución del ERE, ¿qué pedimos desde ELA?**

-A día de hoy exigimos tanto a la empresa principal –Iberdrola–, como a la nueva empresa concesionaria del servicio –Konecta–, lo que por ley nos corresponde y la resolución establece: que a partir del 1 de agosto la totalidad de la plantilla que se encuentra hoy en día en activo en CustomerWorks –y que son las 329 trabajadoras y trabajadores que la empresa Konecta necesita–, pasen subrogados y por lo tanto continúen trabajando en su puesto de trabajo con todos sus derechos y obligaciones.

*"Lan Sailak atzera bota du Customer Work enpresak aurkeztu duen Enplegu Erregulazio Espedientea; langileok subrogazio eskubidea exijitzen dugu"*

### • Errekurtsoak Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren aurka

ELAk errekurtso bana jarri die Nafarroako Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari, soldatak eta enplegu publikoa murrizten dituzten legeen aurka. ELA-Gizalan federazioko idazkari nagusi Izaskun Garikanok azaltzen duenez, "Gobernuek soldatak eta enplegu publikoa murrizten dituzten legeak baliogabetzeko eskatu nahi diegu epaitegiei, askatasun sindikalaren eta negoziazio kolektiboaren eskubideak urratu direlakoan. Gainera, kalte-galeren ordaina emateko ere eskatzen dugu".

"ELAren iritziz, eta hala adierazi dugu errekurtsoetan, askatasun sindikalaren eta negoziazio kolektiboaren eskubideak urratu dira. Demokrazian ezinbestekoak diren bi elementuren inguruan mintzo gara; horregatik prozedura berezia eta premiazkoa da. Gogoratu beharrekoa da bi esparru horietan dauden negoziazio kolektiboaren akordioak ez direla beteko".

### • La Fundación Manu Robles-Arangiz refuerza su trabajo en Iparralde

La Fundación ha suscrito sendos acuerdos de colaboración con la revista *Enbata* y con la asociación Bizi! de Iparralde. El primero, es una renovación por dos años –2010 y 2011– del que ya venía funcionando desde hace cuatro años, para insertar el suplemento *Alda!*, de la Fundación, en la publicación semanal. El otro convenio es con la asociación Bizi!, para la organización conjunta de actividades formativas (conferencias, seminarios, etc.) en el plano altermundialista, ecológico y social. Bizi! es una asociación creada 2009, para la defensa de un modelo sostenible social y medioambietalmente, con la que la Fundación viene colaborando desde su inicio. Con estos convenios, la Fundación Manu Robles-Arangiz afianza su compromiso y colaboración con organismos e iniciativas de pefil abertzale y/o progresista de Iparralde.

**www.ela-sindikatua.org**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207